

**LANKIDETZA-HITZARMENA,
BIODONOSTIA INSTITUTUAREN ETA
BEASAINGO UDALAREN ARTEKOA,
"INMA AZTERLANA- INMA-GIPUZKOA
HAURREN JARRAIPEN-FASEA 14
URTEREKIN" IZENEKO IKERKETA-
PROIEKTUA EGIN ETA FINANTZATZEKO.**

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE
ASOCIACIÓN INSTITUTO BIODONOSTIA
Y EL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN PARA
LA REALIZACION Y FINANCIACION DEL
PROYECTO DE INVESTIGACION
TITULADO "ESTUDIO INMA-FASE DE
SEGUIMIENTO DE LOS NIÑ@S INMA-
GIPUZKOA A LOS 14 AÑOS DE EDAD".**

Beasainen, 2021eko martxoaren 26an

En Beasain a 26 de marzo de 2021

Alde batetik, LEIRE ARTOLA UGALDE jauna (NAN: 35779121E), alkate-presidentea Beasaingo Udalean (IFK: P2002100B). Egintza honetarako ahalmena du, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. Artikuluko 1b) atalaren arabera.

De una parte, D. LEIRE ARTOLA UGALDE con DNI 35779121E, alcaldesa – presidenta del Ayuntamiento de Beasain (C.I.F P2002100B). Se encuentra facultada para este acto en virtud de las atribuciones que le confiere el art. 21,1b) de la Ley 7/1985, de 2 de abril reguladora de las Bases de Régimen Local.

Eta bestetik, BIODONOSTIA INSTITUTUA ELKARTEAREN (G-75020313 IFK, eta egoitza: Begiristain doktorearen pasealekua, 20014 Donostia, Gipuzkoa) (aurrerantzean BIODONOSTIA) ordezkari gisa, Julio Arrizabalaga Aguirreazaldegui jauna (NAN: 15355677-A). 2019ko irailaren 24ko eskritura publikoan Bilboko notario Juan Ignacio Bustamante Esparza jaunaren aurrean emandako ahalordearekin bat etorri (bere protokoloaren 2.846 zenbakiarekin), hauxe

Y de otra, D. Julio Arrizabalaga Aguirreazaldegui, con DNI 15355677-A en representación de la ASOCIACIÓN INSTITUTO BIODONOSTIA (en adelante BIODONOSTIA), con CIF G-75020313 y sede Paseo Dr. Begiristain, 20014 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa), conforme al poder otorgado en escritura pública de 24 de septiembre de 2019, ante el Notario de Bilbao, Don Juan Ignacio Bustamante Esparza, bajo el número 2.846 de su protocolo.

Lehenengoa.-

BIODONOSTIA Ikerketa Sanitarioko Institutu bat da, Donostialdeko ESlari atxikia, eta honako helburu hauek ditu: ikerketa biomedikoa, epidemiologikoa, osasun publikoaren arlokoa eta osasun-zerbitzutakoa sustatzea; osasun-sistemako programak eta politikak zientifikoki oinarritzea, eta ikerketa translazionalari lehentasuna ematea, nazioarteko gomendioen arabera Gipuzkoako lurraldean ezagutza zientifikoak praktika klinikora azkarrago pasatzeko. Horretarako, Osakidetza/SVSrekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenetan oinarrituko da, izan ere, hitzarmen horietan bere baitan garatuko den I+G+b kudeatzeko agintzen baitaio eta eta ikerketa eta berrikuntzako prestakuntza.

Helburu horiek, esan bezala, haren taldeen ikerketen bidez garatzen dira. BIODONOSTIAK, hain zuzen, Ingurumen Epidemiologiako eta Haurren Garapeneko ikerketa-taldea du, Jesús Ibarluzea Maurologoitia doktoreak zuzendua. Talde horrek hainbat jardura zientifiko ditu, eta esperientzia handia du airearen kutsaduraren, ekipamenduaren eta airearen kalitatea ebaluatzeko eta laginketa- eta analisi-estrategiak martxan jartzeko tekniken arloan.

Primero.-

Que BIODONOSTIA es un Instituto de Investigación Sanitaria adscrito a la OSI Donostialdea cuyos fines son: promover la investigación biomédica, epidemiológica, de salud pública y en servicios sanitarios, fundamentar científicamente los programas y políticas del sistema sanitario y potenciar de forma preferente la investigación traslacional, orientada a acelerar el traslado de los conocimientos científicos a la práctica clínica, según recomendaciones internacionales, en el ámbito territorial de Gipuzkoa, en virtud de convenios de colaboración con Osakidetza/SVS, en los que se le encomienda la gestión de la I+D+i que se desarrolle en su seno y formación en Investigación e Innovación.

Dichos fines se desarrollan, como ya se ha dicho, mediante la actividad investigadora de sus grupos. En concreto, BIODONOSTIA cuenta con el equipo de investigación en Epidemiología Ambiental y Desarrollo Infantil dirigido por el Dr. Jesús Ibarluzea Maurologoitia, que desarrolla diversas actividades de carácter científico y posee amplia experiencia en el ámbito de la contaminación atmosférica, equipamiento y técnicas necesarias para la evaluación de la calidad del aire y la puesta a punto de estrategias de muestreo y análisis.



Taldean garatzen den ikerketak lotura estua du substantzia kutsatzaileen emisio-fokuak zehaztearekin, analizatzearekin eta kontrolatzearekin, ingurumenean duten portaeraren azterketarekin, bilakaerarekin eta denboran iragartzearekin.

Bigarrena.-

Beasaingo Udalak interesa du Udalerriko eta Euskal Autonomia Erkidegoko airearen kalitatearen ezagutza hobetzeko jarduerak bultzatzeko, bai eta ingurumena hobetzeko plan estrategikoak edo jarduerak garatzeko ere.

Hori dela eta, eta herritarrek inguruko airearen kalitateari buruz duten kezka erantzun nahian, 2006. urtean BIODONOSTIARI udalerriko hiri-eremuko airearen kalitateari buruzko azterlan bat eskatzea erabaki zuen, INMA-Gipuzkoa kohortearen azterlanerako emakumeak biltzen hastearekin bat.

Hirugarrena.-

Gaur egun, agertutakoek lankidetzari hori indartzeko interesa dute, Beasaingo Udalak ez baitu prestakuntza zientifikoa eta ikertzailearen duen teknikari espezializaturik, goian aipatutako ikerketa-proiektua gauzatzeko.

La línea de investigación que se desarrolla en el Grupo de Investigación está íntimamente relacionada con la determinación, análisis y control de aquellos focos de emisión de las sustancias contaminantes, del estudio de su comportamiento en el medio ambiente, de su evolución y predicción en el tiempo

Segundo.-

Que el Ayuntamiento de Beasain está interesado en la promoción y el impulso de la realización de actividades destinadas a la mejora y profundización del conocimiento de la calidad del aire del municipio y de la Comunidad del País Vasco, así como en el desarrollo de planes estratégicos o actividades destinadas a la mejora del medio ambiente.

Por esa razón y queriendo dar respuesta al interés y preocupación por parte de la población sobre la calidad del aire de su entorno, acordó en el año 2006 encargar un estudio sobre la calidad del aire del área urbana del municipio a BIODONOSTIA coincidiendo con el inicio del reclutamiento de mujeres del estudio de cohorte INMA-Gipuzkoa.

Tercero.-

A día de hoy los comparecientes comparten el interés en reforzar esa colaboración, dado que el Ayuntamiento de Beasain no dispone de personal técnico especializado con preparación científica e investigadora para materializar el



proyecto de investigación indicado en el encabezamiento.

Laugarrena.-

Zalantzarik gabe, proiektu hori herritarren interesekoa da, eta Beasaindarren bizi-kalitatea hobetzen lagunduko luke.

Cuarto.-

Es indudable que esa voluntad redundará en el interés general de la ciudadanía y el desarrollo de ese proyecto incidiría en una mejora de la calidad de vida de los Beasaindarras.

Bosgarrena.-

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.10 artikulua arabera, udalerriari dagokio "osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea". Testu bereko 100. Artikuluak aukera ematen die toki-erakundeei lankidetzak hitzarmenak egiteko, beren artean edo gainerako administrazioekin.

Quinto.-

En virtud de la competencia que le otorga el art. 17.1.10 de la Ley 2/2016 de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, al municipio le corresponde la "promoción, gestión, defensa y protección de la salud pública". El art. 100 del mismo texto legal, posibilita a las entidades locales a celebrar convenios de cooperación, entre sí o con el resto de administraciones.

Seigarrena.-

Horretan oinarrituta, 2021eko udal-aurrekontuan 3.600,00 €-ko partida esleitu zaio BIODONOSTIARI, kontuan hartuta aipatutako ikerketa-proiektuaren aurrekontua, hitzarmen honen I. eranskina osatzen duena, 38.000 €-koa dela.

Sexto.-

En base a ello, se ha consignado en el presupuesto municipal de 2021 una partida nominativa a favor de BIODONOSTIA de 3.600,00 €, teniendo en cuenta que el presupuesto del Proyecto de Investigación citado y que constituye el Anexo I del presente Convenio corresponde con un total de 38.000 €.

Zazpigarrena.-

Ondorioz, kontratatzeko eta beren burua behartzeko gaitasuna aitortuta, bi aldeek hitzarmen hau honako klausula hauen arabera idaztea adostu dute:

Séptimo.-

En consecuencia, ambas partes, reconociéndose mutua capacidad para contratar y obligarse convienen en redactar el presente Convenio con arreglo a las siguientes.

LEHENENGOA.-

Hitzarmen honen xedea da "INMA AZTERLANA – INMA-GIPUZKOA HAURREN JARRAIPEN-FASEA 14 URTEREKIN BEASAINEN" izeneko ikerketa-proiektua egin eta finantzatzeko parte hartzen duten aldeen eskubideak eta betebeharrak arautzea.

BIGARRENA.-

Bigarrena. BIODONOSTIAK konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

1.- Proiektua eta azken txostena egitea, azken hori hitzarmena amaitzen den egunean. Horrekin batera, emaitzak zabaltzeko prozesuan aholkua emango du, Beasaingo Udalak hala eskatuz gero.

Planteatutako helburuak lortzeko, BIODONOSTIAKO Ingurumen Epidemiologia eta Haurren Garapeneko Ikerketa Taldeak, Jesus Ibarluzea doktoreak zuzendutako ikerketa taldearen bitartez, helburuak lortzeko beharrezkoak diren baliabide teknologikoak eta materialak jarriko ditu.

Ikerketa Taldeak jakinaren gainean edukiko du Beasaingo Udala proiektuaren bilakaerari buruz.

PRIMERA .-

Es objeto del presente Convenio regular los derechos y obligaciones de las partes intervinientes para la realización y financiación del proyecto de investigación "ESTUDIO INMA-FASE DE SEGUIMIENTO DE LOS NIÑ@S INMA-GIPUZKOA A LOS 14 AÑOS DE EDAD EN EL MUNICIPIO DE BEASAIN".

SEGUNDA .-

Segunda. BIODONOSTIA asume los siguientes compromisos:

1.- Realizar el proyecto y elaborar un informe final a la fecha de conclusión del Convenio y asesorar en el proceso de difusión de sus resultados, en el caso de que el Ayuntamiento de Beasain lo solicite.

Para la consecución de los objetivos planteados, el Grupo de Investigación de Epidemiología Ambiental y Desarrollo Infantil de Biodonostia, a través del equipo de investigación dirigido por el Dr. Jesús Ibarluzea, proporcionará los recursos tecnológicos y materiales necesarios para conseguir los objetivos.

El Grupo de Investigación mantendrá informado al Ayuntamiento de Beasain, sobre la evolución del proyecto.



2.- Emaizak zabaltzeko prozesuan, Beasaingo Udalak emandako laguntza aipatuko du, baldin eta Udalak eskatuta, BIODONOSTIA bada dibulgazio-jarduera egiten duena.

Bigarren klausularen 1. Puntuan aipatutako txostena Beasaingo Udalak nahi duen edonori bidali ahal izango zaio, eta BIODONOSTIA arduratuko da bidalketa hori egiteaz. Txosten horretako emaitzak bakarrik zabalduko dira, eta beste edozein dibulgazio-jarduera egiteko bi aldeek ados jarriko beharko dute.

3.- Langileak. Beasaingo Udalak ez du proiektuan parte hartzen duten pertsonekin harremanik izango, ez juridikorik, ez lan-harremanik, ez bestelakorik, eta BIODONOSTIArenak izango dira laneko edo bestelako betebeharrak eta erantzukizun guztiak.

4.- Konfidentzialtasuna. BIODONOSTIAk konpromisoa hartzen du datuen eta txostenen konfidentzialtasuna gordetzeko, baita lortutako azken emaitzarena ere.

5.- Hizkuntza-politika. Proiektua eta amaierako txostena euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztuko dira.

6.- Generoa eta berdintasuna. Proiektua garatzeko, kontuan hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko

2.- Hacer mención a la colaboración del Ayuntamiento de Beasain en el proceso de difusión de sus resultados, en el caso de que a petición del Ayuntamiento, sea BIODONOSTIA quien realice la actividad divulgativa.

El informe señalado en el punto 1 de la estipulación segunda, podrá enviarse a cualquier destinatario que considere oportuno el Ayuntamiento de Beasain, siendo BIODONOSTIA el encargado de realizar dicho envío. La divulgación de resultados se ajustará a dicho informe, quedando cualquier otra actividad divulgativa sujeta a acuerdo entre las dos partes.

3.- Personal. El Ayuntamiento de Beasain en ningún caso tendrá relación jurídica, laboral o de cualquier índole con las personas que participen en el desarrollo del Proyecto, siendo por cuenta de BIODONOSTIA todas las obligaciones y responsabilidades laborales o de otro carácter.

4.- Confidencialidad. BIODONOSTIA se compromete a mantener la confidencialidad de los datos e informes, así como del resultado final obtenido.

5.- Política lingüística. El Proyecto e informe final se presentarán en euskara y castellano.

6.- Género e Igualdad. En el desarrollo del proyecto se tendrá en cuenta la Ley 4/2005, de 18 de febrero de

Emakumeen eta Gizonen
Berdintasunerako otsailaren 18ko
4/2005 Legea eta lege hori garatzen
duen araudia.



Beasaingo udala

Igualdad de Hombres y Mujeres del
País Vasco y normativa que la
desarrolla.

HIRUGARRENA.-

Beasaingo Udalak konpromiso hauek
hartzen ditu:

1.- Beharrezkoak diren datu
estatistikoak lortzeko erraztasunak
ematea.

2.- BIODONOSTIA Institutu Elkarteari
bigarren klausulan zehaztutako
jarduera diruz laguntzea, **3.600,00
eurorekin**.

Kopuru hori honela banatuko da:

- % 20 hitzarmen hau sinatzean.

BIODONOSTIA INSTITUTU ELKARTEAK
(G75020313) baimena ematen dio
BEASAINGO UDALARI ZERGA-
BETEBEHARRAK EGUNEAN dituztela
egiaztatzen duten egiaztagiria
eskuratzeko, bai Gipuzkoako Foru
Aldundiko Ogasun eta Finantza
Sailean, bai Gizarte Segurantzari,
hitzarmen honen arabera
betebeharreko baldintza baita.

- Kopuruaren % 80 azterlana
amaitzean, txostena entregatzean
eta gastuak justifikatzean.

TERCERA .-

Por parte del Ayuntamiento de
Beasain, se asumen los siguientes
compromisos:

1.- Facilitar el acceso a datos
estadísticos necesarios para la
consecución de los objetivos
definidos.

2.- Subvencionar a la Asociación
Instituto BIODONOSTIA el ejercicio de
la actividad que se ha concretado en
la estipulación segunda, con un
importe de **3.600,00 €**.

La citada cantidad y por los
conceptos que se indican, se
abonará de la siguiente manera:

- El 20% del importe a la firma
del presente Convenio.

LA ASOCIACIÓN INSTITUTO
BIODONOSTIA (G75020313) autoriza
*expresamente al AYUNTAMIENTO DE
BEASAIN para la obtención del
Departamento de Hacienda y
Finanzas de la Diputación Foral de
Gipuzkoa y de la Seguridad Social los
justificantes acreditativos de que se
cumple la condición señalada en
este convenio de estar al CORRIENTE
DE LAS OBLIGACIONES TRIBUTARIAS Y
CON LA SEGURIDAD SOCIAL*

- El 80% del importe, a la finalización
del estudio, entrega del informe y
justificación de los gastos, para lo cual

Horretarako, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko jarduketa-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak zehaztuta.

b) Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioarekin, zenbatekoarekin, jaulkipen-datarekin eta, hala badagokio, ordainketa-datarekin.

Diru-laguntza ematen duen organoak, nahi dituen laginketa-tekniken bidez, nahi dituen egiaztagiria eskatuko ditu, diru-laguntza behar bezala aplikatu dela egiaztatzeko. Horretarako, gastuen frogagiria bidaltzeko eskatu ahal izango dio onuradunari.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko erabili diren beste diru-sarrera edo diru-laguntza batzuen xehetasuna, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Agiri horiek 20 egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, hitzarmen hau amaitzen den egunetik kontatzen hasita.

Hitzarmen honetako diru-laguntza beste batzuekin bateragarria izan daiteke, baina diru-laguntzen zenbatekoak, bakarka edo beste batzuekin batera, ezin izango du jardueren kostua gainditu; jakin



Beasaingo udala

habrá de acompañarse la siguiente documentación:

a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

b) Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago.

El órgano concedente comprobará, a través de las técnicas de muestreo que estime conveniente, los justificantes que estime oportunos y que permitan obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención, a cuyo fin podrá requerir al beneficiario la remisión de los justificantes de gasto seleccionados.

c) Un detalle de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.

Esta documentación deberá de presentarse en un plazo de 20 días hábiles desde la fecha de terminación del presente Convenio.

La subvención objeto del presente convenio podrá ser compatible con otras, pero el importe de las subvenciones, aisladamente o en concurrencia con otras, no podrán superar el coste de las actividades

bezain laster jakinarazi beharko du diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jaso duen, eta, nolana ere, jasotako funtsei emandako erabilera justifikatu baino lehen.

LAUGARRENA.- Hitzarmen honek 2021-12-31ra arte iraungo du, eta ezin izango da luzatu.

Hala ere, alderdiek egoki ikusten badute Beasaingo airearen kalitatearen azterlanean sakontzen jarraitzea, beste bat sinatuko da, dagokion aurrekontu-esleipena egin ondoren.

BOSGARRENA.- Batzorde bat sortuko da Hitzarmenaren eta sinatzaileek hartutako konpromisoen jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko, eta hitzarmenaren interpretazioak sortzen dituen zalantzak argitzeko. Batzordea honako kide hauek osatuko dute:

- BIODONOSTIAREN aldetik, Jarraipen Batzordeko kidea Jesús Ibarluzea Mañolagoitia doktorea izango da.

- Udal erakundearen aldetik, Alkatea: Leire Artola Ugalde, edo berak eskuordetzen duen pertsona, ingurumenean eskumenak edo zereginak dituen.

subvencionadas; debiendo comunicar tan pronto como se conozca, la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas, y en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

CUARTA .- La duración del presente Convenio será hasta el 31-12-2021 y no será prorrogable.

No obstante, si las partes consideran oportuno continuar en la profundización del estudio de calidad del aire de Beasain, se firmará uno nuevo previa la correspondiente consignación presupuestaria.

QUINTA .- Al objeto de realizar un seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del Convenio y de los compromisos adquiridos por los firmantes, así como resolver las dudas que ofrezca su interpretación, se crea una comisión compuesta por los siguientes miembros:

- Por parte de BIODONOSTIA el integrante de esta Comisión de Seguimiento será Dr. Jesús Ibarluzea Mañolagoitia.

- Por parte de la entidad municipal, la alcaldesa: Dña. Leire Artola Ugalde o persona en quien delegue con atribuciones o cometidos en medio ambiente.

SEIGARRENA.- Jakinarazpenak eta alderdien arteko komunikazioak.

Hitzarmen honen esparruan egiten diren jakinarazpenak eta komunikazioak honako pertsona hauei zuzendu beharko zaizkie:

- Jesús Ibarluzea Maurolagoitia jauna, BIODONOSTIAren aldetik.
- Leire Artola Ugalde andrea, Beasaingo Udalaren aldetik.

SEXTA.- Notificaciones y comunicaciones entre las partes.

Las notificaciones y comunicaciones que se produzcan en el marco del presente Convenio, deberán dirigirse a las siguientes personas:

- D. Jesús Ibarluzea Maurolagoitia, por parte de BIODONOSTIA.
- Dña. Leire Artola Ugalde, por parte del Ayuntamiento de Beasain.

ZAZPIGARRENA.- Jabetza intelektualak.

Aurretik zegoen ezagutza ororen jabetza intelektualeko eskubideak, oso-osorik, horiek garatu zituen erakundearenak dira.

Beasaingo Udala eta BIODONOSTIA jabekideak izango dira hitzarmen honen lankidetzaren ondorioz sortzen den jabetza intelektualeko eskubideetan, hitzarmen batean kontrakoa adosten ez bada behintzat.

Alderdiek lortzen diren datuak eta txostenak erabili ahal izango dituzte udalerriko eta Euskal Autonomia Erkidegoko airearen kalitatearen ezagutza hobetzeko jarduerak sustatzeko, eta baita ingurumena hobetzeko plan estrategikoak edo jarduerak garatzeko ere.

SÉPTIMA .- Propiedad intelectual.

Los derechos de propiedad intelectual de todo conocimiento preexistente pertenecen enteramente a la entidad que los desarrolló.

El Ayuntamiento de Beasain y BIODONOSTIA serán copropietarias de los derechos de propiedad intelectual fruto de la colaboración en el marco de este Convenio, salvo que se pacte lo contrario en un acuerdo.

Las Partes podrán hacer uso de los datos e informes obtenidos para la promoción e impulso de la realización de actividades destinadas a la mejora y profundización del conocimiento de la calidad de aire del municipio y de la Comunidad del País Vasco, así como para el desarrollo de planes estratégicos o actividades destinadas a la mejora del medio ambiente.

ZORTZIGARRENA.- Datu pertsonalen babesa.

Hitzarmen hau behar bezala aplikatzeko, lege hauen bidez babestuta dauden datu pertsonalak eskuratu ahal izango dituzte, noizean behin, alderdiek: datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta horien zirkulazio askeari buruzkoa, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena. Horrenbestez, alderdiek konpromisoa hartzen dute erabiliko eta tratatuko direla hitzarmen hau garatzeko behar diren jarduerekin bat etorriz, une bakoitzean ematen diren jarraibideen arabera.

Era berean, alderdiek onartzen dute datu pertsonalei buruz jaso, kudeatu eta artikulatu dezaketen informazio guztiari buruzko sekretu profesionala gordetzeko betebeharra; datu horiek hirugarrenei ez jakinarazteko betebeharra; datu horiek suntsitzeko, deuseztatzeko edo alderdien arteko lankidetzaren amaitzen denean itzultzeko betebeharra, eta baita beharrezko segurtasun-neurriak aplikatzekoa ere, indarrean dagoen legeriaren arabera.

OCTAVA.- Protección de Datos Personales.

Para la correcta aplicación del presente Convenio, las partes podrían eventualmente acceder a datos de carácter personal protegidos por la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, como por el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE. Por lo que, las partes, se comprometen a que el uso y tratamiento de los mismos será acorde con las actuaciones necesarias para el desarrollo del presente, Convenio según las instrucciones que sean facilitadas en cada momento.

Asimismo, las partes asumen la obligación de guardar secreto profesional sobre cuanta información pudieran recibir, gestionar y articular con relación a los datos personales y a no comunicarlos a terceros, así como a destruirlos, cancelarlos o devolverlos en el momento de la finalización de la colaboración entre las partes, así como a aplicar las medidas de seguridad necesarias, de conformidad con la legislación vigente.

BEDERATZIGARRENA.- Hitzarmen hau bukatutzat emango da:

- 1- Iraupena amaitu ondoren.
- 2.- Bi alderdiek hala adosten badute.
- 3.- Alderdiek hartutako konpromisoak betetzen ez badira.

HAMARGARRENA.- Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. Artikuluaren arabera, hitzarmen honen izaera juridikoa administratiboa da, eta, beraz, jurisdikzio eskuduna administrazioarekiko auziena da.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, bertaratuek dokumentu honen bi ale sinatzen dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

NOVENA.- El presente Convenio quedará resuelto:

- 1- Una vez finalizado el plazo de duración del mismo.
- 2- Por acuerdo expreso de las partes.
- 3- Incumplimiento de las obligaciones asumidas por las partes.

DÉCIMA.- A tenor de lo dispuesto en el art. 47 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, la naturaleza jurídica de este Convenio es de carácter administrativo, y en consecuencia la jurisdicción competente es la contencioso-administrativa.

Y en prueba de conformidad con cuanto antecede los comparecientes suscriben por duplicado ejemplar el presente documento, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

BIODONOSTIA INSTITUTUA ELKARTEA /
ASOCIACIÓN INSTITUTO
BIODONOSTIA

Julio Arrizabalaga Aguirreazaldegui.

UDALETXEA / Por el AYUNTAMIENTO:

Leire Artola Ugalde

I. Eranskina

2021eko AURREKONTUA

ESKATURIKO AURREKONTUA	
<i>Kontratazioa</i>	
2021eko apirila – 2022ko apirila : 12 hilabete / Goi-mailako teknikari bat (goi-mailako teknikaria urtea: 32.000 €). 2021eko urtarriletik 2021eko apirilera bitartean Biodonostiako ikerketa taldearen funtsek finantziatuko dute.	32.000 €
GUZTIZKO PARTZIALA	32.000 €
<i>Beste gastu batzuk</i>	
Jarraipenerako ofimatika materiala.	1.000 €
Desplazamenduak, bidaia gastuak (eskoletara 6 hilabete)	2.000 €
Partaideen gernu eta odol lagina jasotzeko materiala	3.000 €
GUZTIZKO PARTZIALA	6.000 €
ESKATURIKO DIRU-LAGUNTZA, GUZTIRA	38.000 €

2021ean jarduera hau egiteko 38.000 € behar dira.

Anexo I

PRESUPUESTO PROYECTO INVESTIGACIÓN 2021

PRESUPUESTO SOLICITADO	
Contratación	
Período abril 2021 – abril 2022: 12 meses / Técnico superior (1 técnico superior/año: 32.000 €). Entre enero 2021 y abril 2021 se financiará con fondos propios del grupo de BIODONOSTIA.	32.000 €
SUBTOTAL	32.000 €
Otros gastos	
Material ofimática y feed-back para realización del seguimiento	1.000 €
	2.000 €
Desplazamientos personales (6 meses escuelas)	3.000 €
Material para la recogida de muestras de sangre y orina de los participantes	
SUBTOTAL	6.000 €
TOTAL AYUDA SOLICITADA	38.000 €

El coste de esta actividad en 2021 asciende a 38.000€.